

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 774/2024 Erabakia, abenduaren 23koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiko 2024rako enplegu publikoaren eskaintzari

Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 11/2022 Legeak 52.1 artikuluan xedatzen duenez, "Aurrekontu esleipena duten postuak betetzeko langileak behar direnean, postuok ezin direlako bete administrazio bakoitzean dauden giza baliabideekin, enplegu publikoaren eskaintza egin beharko dute euskal administrazio publikoek eta haien mendeko entitateek, edo antzeko beste edozein kudeaketa tresna erabili, langileen ordezkariarekin negoziatu ondoren".

Langile berriak sartzeko aurrekontuan dauden mugei dagokienez, adierazi behar da, nola ez den onetsi Estatuaren 2024rako Aurrekontu Orokorren Legea, Konstituzioaren 134.4. artikuluan jasoriko xedapena aplikatuz indarrean dela Estatuaren 2023rako Aurrekontu Orokorren abenduaren 23ko 31/2022 Legea, zeinetatik eratortzen baita berriztatzeko nahikoa tasa dagoela gauzatzen ari den deialdietako plaza kopurua handitzeko, Giza Baliabideen Zerbitzuak emandako txostenaren arabera.

Urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateratuak 37.1.1) artikuluan jasotako negoziazioa egin ondoren ordezkariak duten sindikatuarekin, erabaki honen xedea da Arabako Foru Aldundiaren enplegu publikoaren 2024rako eskaintza onestea.

Nahitaezko txostenak ikusita eta haietan oinarrituta, lehenengo diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, honako hau

ERABAKIA

Lehenengoa. Onspena ematea Arabako Foru Aldundiaren zerbitzura dauden funtzionarioen eta erabaki honen eranskinean jasotzen diren plazen 2024rako enplegu eskaintzari. Horrek esan nahi du, konprometitutako lanpostuetarako hautaketa-prozesuetarako deialdia egin behar dela nahitaez.

Era berean, konprometitutako plazen deialdiak, hala badagokio, ehuneko 10eraino gehitu ahal izango dira, eskaintza hau onartu zenetik sortu diren lanpostu hutsak daudenean.

Hautaketa-prozesuen arrazionalizazio- eta eraginkortasun-arrazoiengatik, akordio honetan jasotako plazak 2023ko lan-eskaintza publikoan sartuta daudenei metatu ahal izango zaizkie, baldin eta oraindik deitzeke badaude, dagozkien oinarrietan hala aurreikusten bada.

Bigarrena. Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 91. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, aipatutako eranskinean eskala bakoitzaren barruan adierazitako lanpostu kopurua gorde da, barne sustapenaren bidez sartzeko.

Barne sustapeneko txanda orokorrean betetzen ez diren plazak sistema irekiaren bidez deitutako plazei gehituko zaizkie, langileen birjartze tasaren bidez zehaztutako plazen gehieneko mugaren barruan.

Hirugarrena. Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 74. eta 75. artikuluetan eta aplikatzekoa den araudian ezarritakoa betetz, xedatzen da lanpostu hutsen ehuneko 5eko erreserba egitea ehuneko 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonak betetzeko, adimen desgaitasunaz bestelakoa, baldin eta hautaprobak gainditzin badituzte eta, hala dagokionean, egiaztatzen badute, batetik, adierazi den desgaitasun maila eta bestetik, egitekoak eta eginkizunak betetzeko bateragarritasuna, aplikatzekoa den legerian ezartzen den moduan.

Desgaituentzat gordetako plazak plaza arruntekin batera deituko dira, erabaki honen eranskinean ezarrita dagoen bezala, eta deitzen diren hautaketa prozeduretan gainerako hautagaiek dituzten baldintza berberekin onartuko dira. Gainera, hala eskatzen duten desgaituentzat, hauta-probetan denbora eta baliabideak egokituko dira, baldin eta egokitzapen horiek proben edukia aldatzen ez badute edo horietan eskatzen den gaitasun maila gutxitzen edo kaltetzen ez bada.

Laugarrena. Eskainitako plazak eskuratzeko prozedura eta betekizunak kasuan kasuko deialdietan zehaztuko dira, lehenengo diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuaren foru aginduz onetsiko diren oinarrien arabera.

Dagozkien deialdietan zehaztuko dira, halaber, derrigortasun-data igarota duten euskarazko hizkuntza-eskakizunak dituzten lanpostuak. Eskakizun horiek nahitaez bete beharko dira maiatzaren 10eko 167/2024 Foru Aginduaren bidez deitutako lekualdatze-lehiaketako lanpostuen behin betiko esleipena egin ondoren.

Bosgarrena. Argitaratzea erabaki hau eta bere eranskina ALHAOn, eta haren laburpena EHAAn.

Seigarrena. Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, lan eskaintza publikoaren exekuzioa hiru urteko epean amaitu beharko da, deialdia onesten den egunetik zenbatzen hasita.

Zazpigarrena. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo bestela, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena eman duen erakundean; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1. artikuluan aurreikusitakoaren arabera eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluekin lotuta.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 23a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,

Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Funtzio Publikoko zuzendaria

MARÍA JOSÉ FERNÁNDEZ ALONSO



ERANSKINA

TALDEA AZPITALDEA	ESKALA, AZPIESKALA ETA KLASEA	PLAZA	SISTEMA IREKIA		BARNE SUSTAPENeko SISTEMA TXANDA GORDETAko OROKORRA	GUZTIRA
			TXANDA OROKORRA	EZINDUENTZAT GORDETAko KUPOA		
A (A1)	211	Nekazaritza ingeniaria	2	---	---	2
		Itzultzailea	1	---	---	1
	221	Kultura plangintzako teknikaria	1	---	---	1
A (A2)	11	Zerga ikuskatzaile laguntzailea	1	---	1	2
		Kultura ekintzako erdi-mailako teknikaria	---	---	1	1
	212	Osasun eta prebentzioko teknikaria	1	---	---	1
C (C1)	221	Gizarte zerbitzuetako ikuskatzailea	1	---	---	1
		Mantentzeko ofiziala	---	---	1	1
	213	Laborategiko analista	2	---	1	3
C (C2)	222	Arte grafikoak	1	---	---	1
		Herrilarietako kontrolatzailea	1	---	1	2
AP	14	Menpekoea	1	1	1	3
			12	1	6	19

- 11. ADMINISTRAZIO OROKORRA - TEKNIKARIAK
- 14. ADMINISTRAZIO OROKORRA - MENPEKOA
- 211. ADMINISTRAZIO BEREZIA - TEKNIKARIAK - GOI-MAILAKO TEKNIKARIAK
- 212. ADMINISTRAZIO BEREZIA - TEKNIKARIAK - ERDI-MAILAKO TEKNIKARIAK
- 213. ADMINISTRAZIO BEREZIA - TEKNIKARIAK - TEKNIKARI LAGUNTZAILEAK
- 221. ADMINISTRAZIO BEREZIA - ZERBITZU BEREZIAK - EGITEKO BEREZIAK
- 222. ADMINISTRAZIO BEREZIA - ZERBITZU BEREZIAK - LANBIDEETAKO LANGILEAK